

MURRIZKETA, ERREFORMA ETA INPOSIZIOEI AURRE EGIN. M-29AN GREBARA GOAZ. ESKUBIDE LABORAL ETA SOZIALEN ALDE

Eskubide laboral eta sozialen aurka inoiz ikusi gabeko eraso ari gara pairatzen. Gobernuak patronalarekin eta botere ekonomikoekin elkar hartuta jokatzeko dute. Euren politikak eragindako krisiaz baliatzen ari dira era guztietako murrizketak egiteko. Guztien gainetik helburu bakarra: lehentasuna enpresen etekinei ematea eta gutxiengo bat aberastea, herritar gehienak txirotzearen truke; horretarako hainbat bidetatik jo dute: soldatak jaitsi, enplegua prekarizatu, langabezia hedatu, gizarte-prestazioak, pentsioak eta gastu publikoa murriztu (osasungintzan, hezkuntzan edo gizarte-zerbitzuetan).

Erreforma laborala eta negoziazio kolektiboarena, Raxoiren gobernuak dekretuz erabakia, taxu bereko beste eraso bat dugu, eta aurreko urteetan onartutako erreformen ildotik dator. Baina ez da edozein urrats, "oso oldarkorra" izan baita, gobernu bereko kide batek adierazi zuen moduan. Erreforma honek lan-harremanak erabat desorekatzen ditu. Enpresarioari askoz botere handiagoa eta erabakitze aukera zabalagoa ematen dio, eta langileak ahultzen ditu. Erreformaren ezaugarriak:

- Kaleratzea erraztu eta merkatzen du. Hau egundoko atzerapausoa da, kaleratze bat bidezkoa dela jotzeko zergatiak gehitzen baititu. Kaleratze bidegabeagatik kalteordaina murrizten du, tramitazio-soldatak ezabatzen ditu, arlo publikoan kaleratze objektiboa ahalbidetzen du eta EEtarako baimen administratiboa ezabatzen du.
- Negoziazio eskubidea ahultzen du. Hitzarmen kolektibo bat bi urteko epean berritzen ez bada, bertan behera geratzen da. Erabateko lehentasuna ematen zaio enpresa-hitzarmenari, sektore-hitzarmenekiko, eta enpresei hitzarmena aplikatzeko salbuespena gauzatzeko aukera errazten zaie.
- Malgutasun laborala enpresaren gustora gehitzen da. Aurrerantzean errazagoak izango dira mugikortasun funtzionala, geografikoa eta lan-baldintzen funtsezko aldaketak.
- Kontratuak are prekarioagoak izango dira. Ez da etenik izango enpresentzako diru-laguntzei dagokionez; erreformak kontratu prekario berriak sortzen ditu, lehen urtean kaleratzea debaldekoa delarik, eta lanaldi partzialeko kontratua aldatu egiten du, malguagoa izan dadin.
- Neurriok guztiok eragin larria dute enpleguari eta gizarteko egoerari dagokionez okerren dauden kolektiboengan.

Erreformaren helburua da langileak edozein lan-baldintza onar dezan derrigortzea, baldintzak gero eta okerragoak direlarik. Lehengo lepotik burua. Aurrez egin izan diren erreforma eta murrizketek prestatu dute bidea: UGTk eta CCOOk pentsioak jaisteko eta erretiro adina 67 urtera atzeratzeko sinatu zuten akordioa, 2010eko erreforma laborala, 2011ko negoziazio kolektiboaren erreforma, arlo publikoaren aurka hartutako erabakiak edota urtarrilaren amaieran CEOErekin itxitako akordioa, non aipatutako bi sindikatu horiek onartzen duten erosteko ahalmena galtzea eta malgutasun laborala areagotzea. Gure organizazioek ez dute onartzen eskubideak txiki-txiki eginda uztea ezinbestekoa denik. Ez gara murrizketen laguntzaile izango. Ez dugu bake sozialik emango. Ez gara bakerik ematen ari.

Behin eta berriz salatu izan ditugu erakundeak ezartzen ari diren politikak. EAEko eta Nafarroako administrazioek egin dituzten gizarte-gastuko murrizketen aurka plazaratu gara. Zerbitzu publikoek ekiten diete, batik bat hezkuntzari, osasungintzari eta gizarte-zerbitzuei. Aurrekontuak moztu egin dira, eta publikoa dena 2005eko mailaraino jaitsi da. Bereziki larriak eta esanguratsuak dira gizarte-prestazioen murrizketak, hamarna milaka pertsona babesik gabe uzten baitituzte (Hego Euskal Herrian 200.000tik gora lagun dago lanik gabe, 55.000 familiak behar dute diru-sarrerak bermatzeko errenta EAEn, eta 18.000k, oinarritzko errenta Nafarroan). Prestazioak gutxitzeaz gainera, pertsona asko, batez ere etorkinak, prestazioak jasotzeko esubiderik gabe gelditu dira. Gainera, prestazio hauek jasotzen dituztenak kriminalizatu egiten dituzte eta langabeei egozten zaie euren egoeraren errua.

Zerga-politika ere salatu dugu. Onurak ematen zaizkie gehien dutenei, eta ez dago borondaterik iruzur fiskalari jazartzeko. Zerga-politika hau injustua, atzerakoia eta gizartearen parte hartzerik gabe erabakia da.

Garatzen ari diren politikak bidegabeak eta antidemokratikoak dira. Ez gaituzte krisitik aterako; aitzitik, krisia larriagotu egingo dute: langabezia, pobrezia eta gizarte-bazterketa hedatzen ari dira politika horien ondorioz. Erabateko norabide aldaketa egin behar da:

- Raxoiren erreforma laborala eta negoziazio kolektiboarena erretiratu eta aurreko erreformak ere indargabetu. Eskubide laboralak gehitu eta negoziazio kolektiborako eskubidea babestu. Enplegu prekarioa desagerrarazi egin behar da.
- Aberastasunaren banaketa bidezkoa lortze aldera, langileen erosteko ahalmena hobetu beharra dago.
- Enplegua sortzeko politikak bultzatu, lanaldia murriztuz, gizarte-gastua gehituz, eskubide sozialak aintzat hartuz eta zerbitzu publikoak hobetuz.
- Lan-harremanen eta gizarte-babeseko euskal esparrua behar da, arauak emateko ahalmen betetarekin, eskubide laborala eta sozialen aitortzan aurrera egin dadin.
- Gizarte-prestazioei ezarritako murrizketak, lege zein aurrekontuei dagokionez, indargabetu. Zenbatekoak hobetu behar dira.
- Gizarte-zerbitzu sare bat eratu, publikoa, unibertsala eta aurrekontu publikoek finantzatutakoa, menpekotasun egoeran dauden pertsona guztiei estaldura bermatuko diena.
- Zerga-politika bidezko eta progresiboa ezarri, azken hamarkadetako erreformak bertan behera utzi eta aberastasunaren banaketa bidezkoa bermatuko duena. Iruzur fiskalaren kontrako benetako borroka.
- Eragile sozial eta sindikalen zinez parte hartzeko eskubidea bermatu, politika publikoen definizio eta ebaluazioa egiterakoan.
- Aukera-berdintasunerako politikak taxutu. Lana eta bizitza pertsonala kontziliatzeko benetako politikak. Produkzio- eta ugaltze-lanaren banaketa.

Egoera latza da. Ezetz esan behar diogu lege laboralen eta negoziazio kolektiboaren erreformari, eta eskubide laborala zein sozialak hobetzea eskatu behar dugu; kalitatezko zerbitzu publikoak behar ditugu. Beharrian honetan bat gatoz hainbat antolakunde sindikal eta sozial, eta sinetsita gaude mobilizazio erantzun zabala beharrezkoa dela. Horregatik egin dugu Hego Euskal Herrian martxoaren 29rako greba orokor deialdia.

Greba orokor hau erasoei emandako erantzuna da, eta politikak alda daitezzen aldarria izan nahi du. Mugimendu sindikal eta sozialak erantzuna ematen die eta deiarra botatzen du Europan zehar erabakitzen ari diren politiken aurka. Martxoaren 29an grebara goaz. Gure eskubidea ez ezik, gure erantzukizuna da.